

Ó
R

bizikidetzaz- eta
berradiskidetzaz-kultura
berri baterako

2014
indargunea

Humanizazioa
Elkargune eraikitzailea

baketik

2014ko urtarrila



bizikidetza- eta berradiskidetze-
kultura berri baterako

2014
indargunea

Aurkezpena

2011ko urtarrilean Baketik-ek «Berradiskidetzarako Indarguneak» ekimena jarri zuen abian. Urtearen hasieran, geure gizartean bizikidetza- eta berradiskidetze-kultura berria bultzatzea helburu duen agiria aurkeztea da ekimenaren xedea.

Lehenengo agiriaren izenburua honakoa izan zen: «Berradiskidetze-prozesu bat modu partekatuan kokatzeko eta bultzatzeko oinarri-proposamena». Eredu desberdinetara (politikoa, udal mailakoa, hezkuntza, elkarteak eta eguneroko bizitza) zuzenduak zeuden «Bost proposamen zehatz» izenburua zeraman «2012 indargunea»k. 2013koak aliantza estrategikoa proposatzen zuen Udalen eta ikastetxeen artean herri mailan bizikidetza bultzatzeko.

2014 Indarguneak aurten bereziki azpimarratu nahi dugun lehentasun batean jarriko du arreta, humanizazio-konpromisoa onartzeko eta partekatuzko funtsezko garrantzian. Hamarkadetan gure gizarteak gatazka suntsitzaile eta bortitza bizi ondoren, funtsezkoa da bizikidetza bultzatuko duen prozesu baten alde lan egitea non etikak eta demokraziak kudeatuko dituzten desberdintasun guztiak.

Bizikidetza berradiskidetuaren etorkizunarekiko konpromisoa orainetik eraiki behar da. Gaur egiten duguna, bihar iragana izango da. Horregatik, orainean aukera bikaina dugu iraganarekiko, helburu dugun etorkizunean aurrera egiteko. Elkargune eraikitzaile baterako aukera da humanizazioa.

Iraganeko jarreraren eta inertzien azterketa kritikoa egitea eskatzen du humanizazioak hamarkadetan eragindako minari eta sufrimenduari min eta sufrimendu gehiago ez gehitzeko. Bestetik, desberdinen aurrean sentikortasunez eta enpatiaz betetako begirada berria eratzea beharrezkoa du humanizazioak. Azkenik, borondate hori errealitatean gauzatzeko konpromiso zehatzak ere behar dira.



bizikidetz- eta berradiskidetze-
kultura berri baterako

2014
indargunea

Garai berriak, jarrera zaharrak

Paradoxa bat ematen da geure bizitza sozialean eta politikoan. Alde batetik, gehiengoak onartzen du garaiak aldatu direla; baina, beste alde batetik, jarrera zaharrekin topatzen jarraitzen dugu. Inertzia horietako batzuk ondorengoak dira:

•**Zatitu.** Banantzen gaituenean arreta jartzea eta ez batzen gaituenean. Desberdintzen edo banantzen gaituen hura bilatzen jarraitzen dugu elkartzen eta hurbiltzen gaituenean gainetik. Partekatzen dena ikusteko gaitasuna garatzea galarazten digu hamarkadetako zatiketa-inertziaren indarrak.

•**Deskalifikatu.** Kritika autokritikarik gabe. Besteak egiten duena epaitzeko eta zentsuratzeko joera elikatzen du gatazka orok kode suntsitzailean. Horrela, beste aldearen erantzukizun eta eskaera guztiak hustu egiten dira, aldatzeko borondate falta aurpegiatzerara helduz, geure borondatea aztertu aurretik ere.

•**Exijitu.** Inmobilismoaren gakoa. Sarritan, ikuspegi alderdikoia inposatzen da. Besteei egin beharko luketena egitea exijitzera eta geure inobilismoa exijentzia horiek ez betetzearekin justifikatzerara murrizten da guztia.

•**Gailendu.** Garaileak eta garaituak. Etsai gisa ikusten dena garaitzeko helburuak presente egoten jarraitzen du, paradoxikoa dirudien arren, bere zimenduen artean garaitutako, eta ziur aski banandutako, pertsonen sektore sozial bat edukiko duen gizarte berria eraikitzea lortuz horrela.

•**Iraindu.** Iraintzen duten hitzak. Azken hamarkadetan, norberaren inguruko errealitatea zein kanpokotzat jotzen diren haien kontrakoa deskribatzeko bere hizkuntza propioa sortu du sektore bakoitzak. Joera hori ez da desagertu erabat eta krispazio, min eta erremin gehiago sortzen duen hizkuntzak bere horretan dirau.



bizikidetza- eta berradiskidetze-
kultura berri baterako

2014
indargunea

Begirada berria garai berrietarako

Gatazkaren inertziak gailenduko dituen begirada eraikitzaile baten aldeko apustua egitea da humanizazioa: garai berriak, jarrera berriak. Bizikidetza integratu bati lagun diezaioketen jarretako batzuk honakoak dira:

•**Aitortu.** Humanizazioak geureganako begirada orientatzen du. Begirada hori humanizatzailea da, lehenik eta behin, akatsak egiten ditugun pertsonak eta, ondorioz, gizakiak bezala ikusarazten eta aitortzen gaituelako. Eta, bestetik, besteen ekintzen ondorengo epaia sentikortasun handiago baten gakopean egiten delako, beste alde horretan, akatsak ere egiten dituen gizaki bat aitortzen delako.

•**Integratu.** Indarkeria, edozein formatuetan eta argudioetan, zerbait onartezina denaren aldeko apustua egin nahi du humanizazioak. Horregatik, pertsonaren duintasunaren aurka doazen ideiak garaitu behar dira. Hala ere, geure gizarteak bizikidetza berradiskidetu bat baldin badu helburu bezala, pertsonak integratzearen aldeko apustua egin behar du eta ez gailentzearen aldekoa.

•**Komunikatu.** Hitza zatiketarako arma egingo ez duen eta akordioaren aldeko hazia egingo duen komunikazioaren aldeko apustua egitera eraman behar gaitu humanizazioak. Horrekin batera, gatazka bortitzak, neurri handi batean, besteen sufrimenduaren aurrean entzungorreak egin gaitu. Horrela, ezinbestekoa da beste aldearen minak eta ondoezak ezagutzeko eta entzuteko eremuak bultzatzea.

•**Elkarlanean aritu.** Zaila den arren, geroz eta indar gehiagorekin lankidetzaren eraikitzaile gaituak jasotzen ari diren deiaren aurrean irekiagoak izan behar dute alderdiek. Lankidetzaren horrek beharrezko akordioaren aukera handituko du, eta aldi berean alderdiak gizartearentzat jokabide-eredu gisa ageraraziko ditu. Hauen arteko lankidetzarik gabe, pertsonen artean ematen dena garrantzitsua izango da baina ez nahikoa.

•**Adostu.** Aldeen artean zatiketa-puntua aurkitu nahi duen begiradaren aurrean, oraina, txikia dirudien arren, elkartzen gaituen hori bilatzeko behin eta berriro eskatzeko eremua izatea iradokitzen du humanizazioak. Humanizazioak errealismo-puntua ematen digu: gutxieneko akordioarik eta adostasunik gabe, ez dira etorriko maximoak izan nahi duten akordioak.

Konpromisoak

...giza duintasunarekin. Inork ez digu bermatzen besteen iritziak eta ideiak alda ditzakegunik, hala nahi badugu ere. Aldiz, gizon eta emakume askeak izateko gaitasunak guztia geure alde jartzen du, nahi izanez gero, geure jarrerak alda ditzagun. «Bestea» etsai bezala ikusteari uztea eta pareko bezala ikustea da humanizazioa, biak berdinak giza duintasunean.

...biktimen guztienganako enpatiarekin. Humanizazioak enpatiaren beharra dauka ez bakarrik bestearen lekuan jartzeko gaitasun gisa ulertua, haruntzago joan eta besteengatik kezkatzeko eta arduratzeko baizik. Horretarako, beharrezkoa da gehien sufritu duten pertsonenganako errespetutik entzutea eta sufrimendu horretaz jabetzea.

...eskuzabaltasunarekin. Humanizazio eraikitzaileak eskuzabaltasun handia behar du. Horrek esan nahi du pertsona erdian kokatzea, geure nagusien sufrimenduan eta beren bake-beharrean pentsatzea, etorkizuneko belaunaldietan eta utzi nahi diegun horretan pentsatzea. Azken finean, interes orokorra ikuspegi alderdikoiaren gaineratik jartzea, bizikidetzaren guztien ongia irain edo min partikularraren gaineratik.

...espetxe-legediaren etikarekin. Espetxe-politikaren berreziketarako eta bergizarteratzeko betebeharra, eta baita preso dauden pertsonen arduratzen diren beste legezko aginduak ere, ez betetzeak deshumanizazio-tresna bilakatzen dute politika hori. Hala ere, legaltasunaren interpretazio etikoak bere potentzial humanizatzaile guztia garatzea ahalbidetuko luke.

...aldebakartasunarekin. Norbanakoen askatasunari interpelazio zuzena da humanizazioa, aldebakartasunez erabakitzeke zer den nik egin dezakedan hori, txikia izan arren, gauzak hobetzeko. Gaurko jarrerak aldatzeko emango diren urrats ausartak izango dira bihar zatiketa-testuinguru batetik bizikidetz- eta berradiskidetu batera pasatzea ahalbidetuko duen indar eragilea sortuko dutenak.

Ondorio gisa

1. Humanizazioa gaur eta hemen bi lehentasun dituen konpromiso eraikitzailea da: alde batetik, sufrimendu pertsonalak eta kolektiboak murriztea; eta, bestetik, harreman pertsonalak, sozialak eta politikoak berriz osatzea. Bere abiapuntua giza duintasunaren balio gorena da, bere ibilgailua eskuzabaltasuna da eta bere xedea bizikidetzaren berradiskidetzea da.

2. Humanizazioa, beraz, hau jakitea baino ez da: «sufrimenduak murriztea eta harremanak berriz osatzea edozein interes alderdikoi baino balio handiagoa duen lehentasuna da». Euskal bake- eta bizikidetz- eta berradiskidetz- prozesuan parte hartzen duten aktore guztiak humanizazio-konpromisoan elkargune eraikitzaile bat bilatzera gonbidatzen ditugu. Bereziki, humanizazio-akordio soziala eta politikoa bultzatzeko prozesuaren buru izatea eskatzen diegu alderdiei eta instituzioei.